

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



OILLOA AZTERKA

Adiskidetasuna altxorra da eta zaindu egun bear da. Eta gure lagunena izaera onak ez doguz alboratu bear. Ez dakigula jaso alegi onetako oilloari jazioa.

Antxiña miruak ez ebazan txitak eroaten jateko, mirua oilloaren laguna zalako.

Baiña egun larri baten gauzak aldatu egin ziran betiko: Oilloak miruaren seme-alabak ondo apainduta ikusi ebazan eta miruari eskatu eutson, bere txitak be ondo apaintzeko, labaiña.

Miruak emon egin eutson oilloa bere laguna zalako eta arren ez galtzeko eskatu eutson.

Oilloa etorri zan etxera labaiñeagaz eta apaindu ebazan txita guztiak eta lurrean itzi eban konturatu bagerik, labaiña.

Txitak asi ziran labaiñeagaz jolasten eta galdu egin eben.

Laugarren egunean joan zan mirua labaiñearen billa, baiña ezin izan eben aurkitu.

Oilloa lotsatu egin zan eta autortu eban zer jazo zan eta labaiñearen billa jarraituko ebalan esan eutson miruari.

Miruak asarretuta, egun bi barru etorriko zala esan eutson. Olan egin eban baiña labaiña ez zan agertu. Orduan miruak txita bat artu eban eroateko eta besteak be eroango ebazala esan eutson oilloari, labaiña agertzen ez ba'zan.

Oilloak, zoratuta, bere lagunai dei egin eutsen laguntzeko. Dana alperrik. Orregaitik, oilloa gaur be azterka ibiltzen da lurrean labaiñearen billa eta miruak txitak eroaten jarraitzen dau.

Jolastu ta jolastu baiño ez?

Laster galduko dozuz

bizia ta askatasuna.

✠ OLAZAR´tar Martin´ek